



### Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak

Urgentzia ekologikoa eta larrialdi soziala:  
erronka ekosozialen aurrean alternatibak eraikiz

#### III. Encuentros Ecosocialistas Internacionales

Urgencia ecológica y emergencia social:  
contruyendo alternativas a los desafíos ecosociales

Bilbo, irailak 23-24-25 septiembre 2016

## HIZLARIAK



**ALBA DEL CAMPO** adizko Trantsizio Energetikoko Mahaiko koordinatzailea da. Kazetaria, energia trantsizio prozesuetan aholkularia eta hezitzailea. Sí Se Puede Cádiz talde politikoan lan egiten du, Cadizeko Diputazioan. Informazio Zientzietan lizentziatua (UCM) eta Ikerketa Aurreratuetan Diplomatu (DEA) Madrilgo Universidad Complutenseko Soziologia eta Zientzia Politikoetako Fakultatean. 2012tik Nuevo Modelo Energético Plataformako kidea. Europako Parlamentuko Equo taldearen (Berdeak-ALE) laguntzailea eta komunikazio arduraduna (2014-2015). Bi dokumental egin ditu egungo eredu energetikoari eta eraikuntza arloko alternatiben inguruan: #Oligopoly2. El imperio eléctrico contra todxs (Eurosolar Saria 2013) eta #OligopolyOFF. Empieza la revolución energética ciudadana (2015).



**ALFONS PÉREZ** elektrizitate ingeniari teknikoa eta Jasangarrtasun Masterra duena. Egun Zorraren Globalizazioaren Behatokian lan egiten du, non Europako Batasuneko energia politikak aztertzen dituen ikuspegi geopolitikotik eta energiaren munduan logika finantzarioak daukan eragina ikustaraziz. Politika hauen artean, gura duen Energia Batzeko estrategiak Errusiarekiko menpekotasuna murriztea dute helburu. Estrategia honek inportazio eta estatuen arteko loturarako azpiegituren eraikuntza dakar, hala nola gasbide handiak eta tentsio oso altuko lineak.



**CONRAD KUNZE** (Rosa Luxemburgo Fundazioa) soziologoa eta historialaria. Azken bost urteetan ekologiarekin zerikusia duten gaien inguruan erakutsi eta idatzi du, eta energiarekin loturiko zenbait proiektutan ikertu. Gaur egun Friburgoko Unibertsitateko Ingurumen Gobernantza Institutuan lan egiten du. 2012an Büro für eine del demokratische Energiewende -Eredu Energetiko Demokratikoaren

alterecosoc.org



@alterecosoc



alterecosoc



### Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak

Urgentzia ekologikoa eta larrialdi soziala:  
erronka ekosozialen aurrean alternatibak eraikiz

#### III. Encuentros Ecosocialistas Internacionales

Urgencia ecológica y emergencia social:  
contruyendo alternativas a los desafíos ecosociales

Bilbo, irailak 23-24-25 septiembre 2016

Bulegoa- sortu zuen Berlinen, eta Ende Gelände (Honaino iritsi gara) Energia eta Klima Kanpamentuan ekintzailea izan Lusacia/Lausitz-eko ikatz meatzeak ixteko.



**DANIEL TANURO** ingeniari agronomo eta ambientalista belgikarra da. Europako mugimendu ekosozialistaren fundatzaileetako bat eta 1. manifestu ekosozialistaren lehen idazleetako bat. Ingurumen gaietan espezializatutako komunikabideetan ohiko kolaboratzaile. Hainbat liburu argitaratu ditu aldaketa klimatikoaren eta alternatiba ekosozialisten inguruan. Bere azken liburua gaztelerara ere itzulia izan da eta

*El imposible capitalismo verde* du izena.



**ELIZABETH PEREDO BELTRAN** Boliviako Gizarte Psikologoa, ikertzailea, idazlea eta ekintzailea. Bere lana ura ingurumeneko guztion ondarea, eta ondare kulturala izatean oinarritzen da. TAHIPAMU-ko (historian zehar emakumeek izandako parte-hartzearen tailerra) sortzaileetako bat da. Etxeko Langileen Eskubideen

Defentsarako Nazio Batzordearen koordinatzailea izan da, eta 1999tik etxeko langileen eskubideen inguruan ikertu, argitaratu eta kanpainak egin izan ditu, 2003ko legearen onarpena lortu arte. 2000. urtetik uraren aldeko borrokan aritu da, ikerketak, liburuak, artikuloak eta justizia ekonomikoaren, paradigma berrien eta klima-justiziaren inguruko bideo bateko gidoia egin ditu. Duela urte batzuk ura guztion ondarea dela defendatzen duen Boliviako Campaña Octubre Azul gizarte mugimenduko bultzatzailea da, Washington-eko Food and Water Watch-eko Administrazio Kontseiluko kidea da, eta Inbertsio Globalen Justiziarako Sare Internazionalako Aholkulari Kontseiluko kidea da. 2006tik ura, ekonomia, kultura eta feminismoa lantzen dituen Solon Fundazioko zuzendari exekutiboa da .



**EMILIO SANTIAGO MUÑO** Gizarte Antropologian doktorea, SEBSeko erorketaren ondoren politika ekologikoaren ikuspegitik egindako Kubako trantsizio sistematikoaren inguruko tesia egin zuen. Madrilgo Universidad Autonomia-ko Trantsizio Sozio-ekologikoko



@alterecosoc



alterecosoc



### Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak

Urgentzia ekologikoa eta larrialdi soziala:  
erronka ekosozialen aurrean alternatibak eraikiz

#### III. Encuentros Ecosocialistas Internacionales

Urgencia ecológica y emergencia social:  
contruyendo alternativas a los desafíos ecosociales

Bilbo, irailak 23-24-25 septiembre 2016

Ikerketa Talde Diziplinartekoko kidea da. Transicion Rompe el Circulo Institutuko sortzaile eta ekintzailea. Bi liburu idatzi ditu: No es una estafa, es una crisis (Civilización) eta Rutas sin Mapa (Catarata 2015 saiakera saria).



**ÉRIC TOUSSAINT** ientzia Politikoetan doktorea Liejako eta Paris VIII Unibertsitateetan. Hirugarren Munduko Zorra Ezabatzearen aldeko Batzordeko bozeramailea da (Nazioarteko CADTM), eta ATTAC-Frantziako Zientzia Kontseiluko kidea. Zor Publikoaren Auditoretza Integralean parte hartu zuen (CAIC). 2008an Ecuadorko Zorraren Auditoretza martxan jarri zuen. 2010etik Zorraren Auditoretza Herritarretako proiektu ezberdinetan parte hartzen du Europan eta Amerika Latina-n (Portugal, Espainia, Frantzia, Belgika, Argentina eta Brasil). 2015ean Greziako Parlamentuko presidentek (Zoe Konstantopoulou) Greziako Zorraren Auditoretzarako Nazioarteko Batzordeko zuzendari izendatu zuen. Zorraren eta nazioarteko finantza erakundeen inguruan liburu ugari idatzi ditu, eta Zorraren Auditoretza Herritarra egiteko bi gidaliburu idatzi ditu.



**GORKA BUENO** elekomunikazio Ingeniaritzan doktorea da, eta UPV/EHuko Elektronika Teknologiko Irakasle Titularra. Bere jarduera akademikoa energiaren jasangarritasunean oinarritzen du. Hainbat liburu eta ikerketa argitaratu ditu Energia urriko mundu baterako gida (2007) eta Hacia un modelo energético sostenible para Euskal Herria (2014). Garraioaren inguruan egin dituen argitalpenak, besteak beste, Analysis of Scenarios for the Reduction of Energy Consumption and GHG Emissions in Transport in the Basque Country (2012) eta Environmental assessment of high-speed rail kapituloaren autoreetako bat izan da, hala nola Evaluating High-Speed Rail. Interdisciplinary Perspectives (Routledge, 2017) liburuarena. Hondakinen kudeaketa eta tratamenduaren inguruan Comparative LCA of two approaches with different emphasis on energy or material recovery for a Municipal Solid Waste Management System in Gipuzkoa (2015) argitaratu du.



**IÑAKI BARCENA HINOJAL** Zuzenbidean Lizentziatua eta Gizarte eta Politika Zientzietan doktorea. Zientzia



@alterecosoc



alterecosoc





### Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak

Urgentzia ekologikoa eta larrialdi soziala:  
erronka ekosozialen aurrean alternatibak eraikiz

#### III. Encuentros Ecosocialistas Internacionales

Urgencia ecológica y emergencia social:  
contruyendo alternativas a los desafíos ecosociales

Bilbo, irailak 23-24-25 septiembre 2016

Politiko eta Administrazioiko Katedraduna, irakasle-ikertzailea Bradford, Hanburgo eta Nevadako Unibertsitateetan. PARTE HARTUZ ikerketa taldeko eta EMAN Ikerketarako Heziketa Unitateko kidea. Ecología Política, VIENTO SUR eta ZER aldizkarietako kontseiluko kidea. 1995ean eta 1996an Europako Ingurumen Bulegoko Estatu Espainiarreko talde ekologisten ordezkaria.



**JON PALAIS** 2008 urtean hasi zen ingurumenaren aldeko aktibismoan. 2011n Euskal Herriko Bizi! mugimenduan sartu zen; bertan batik bat klima aldaketaren aurkako mobilizazio herritarraz arduratzen da. 2013an Alternatiba dinamikaren sustapenean hartu du, eta 2015ean COP21 Indarkeriarik Gabeko Ekintzan.



**JORGE RIECHMANN** Matematika Zientzietan Lizentziatua Madrilgo Universidad Complutense, 1986). Filosofia ikasketak (UNED, 1984-86) eta alemaniar literatura (Berlingo Humboldt Unibertsitatean, 1896-89). Zientzia Politikoetan doktorea (Bartzelonako Universidad Autónoma, 1993), Alemaniako Berdeen inguruan eginiko tesi batekin, Die Grünen. Hainbat liburu eta artikuluren egilea. Besteak beste, Sociedad Española de Agricultura Ecológica, Ecologistas en Acción, Proyecto Gran Simio, CIMA (Científicos por el Medio Ambiente) eta GREENPEACE ESPAÑAko kidea. CIMA-ko presidentea 2005etik 2007ra, eta presidente ordeza 2007tik 2010era. FUHEM-Ecosocialeko Aholkularitza Kontseiluko kidea eta koordinatzailea.



**JOSE MANUEL GUTIERREZ BASTIDA** Irakaslea. UNEDeko Ingurumen Heziketarako Unibertsitateko Aditua. Ingurumen Heziketan Masterra Ikerketa Ekologikoetako Institutuan. Hainbat libururen egilea. Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroan hamaika urtez aritua, horietatik zortzi Heziketa Zuzendaria izanik. Gaur egun Bilboko Ingurugela-Ceidako Ingurumen Heziketako Aholkularia. IRAES 21eko, Estatu mailako Confint-eko eta ESenRED-eko koordinatzailea.





### Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak

Urgentzia ekologikoa eta larrialdi soziala:  
erronka ekosozialen aurrean alternatibak eraikiz

#### III. Encuentros Ecosocialistas Internacionales

Urgencia ecológica y emergencia social:  
contruyendo alternativas a los desafíos ecosociales

Bilbo, irailak 23-24-25 septiembre 2016



**LEIRE URKIDI** Bartzelonako Universidad Autonoman Ingurumen Zientzietako doktorea, eta Salamancako Unibertsitatean Ingurumen Zientzietan lizentziatua. PARTE HARTUZeko (UPV/EHU) eta EKOPOL-eko kidea. Bere ikerketak Amerika Latinako urre meatzeak direla eta izandako gatazketan oinarritzen da. Ekologia Politikoaren eta Mugimendu Sozialen Teoriaren ildotik Txilen eta Guatemalan ikerketak egin ditu. Engenyenia Sense Fronteras eta Intermonekin ere lan egin du kurtso bateko heziketa materiala prestatzen.



**MANUEL GARÍ RAMOS** Ekintzaile antikapitalista eta ekologista. Viento Sur Fundazioko presidentea. Madrilgo Universidad Politécnica-ko Universidad Empresa Sindicatos Katedrako zuzendarikidea. Trantsizio Energetikoetako Foroko kidea. 17 urtez Instituto Sindical de Trabajo, Ambiente y Salud-eko (ISTAS) Ingurugiro Arloko zuzendaria izan da, eta Daphnia aldizkariko zuzendaria. Europa mailako lehen bi topaketa ekosozialistetan parte hartu du. Ikerketa eta azterketa ugari zuzendu ditu eredu produktiboaren, klima aldaketa eta enpleguaren arteko erlazioaren eta produkzio garbia, lanaren antolaketa eta enpresako erabakietan langileen parte-hartzearen arteko erlazioaren inguruan. Unibertsitateko hainbat kurtso zuzendu ditu REACH, aldaketa klimatikoa eta energia sistema jasangarrien inguruan. 123 artikuluen egilea eta 8 libururen egilekidea. Cambio Global 2020-2050 proiektuaren barruko Cambio climático y salud ikerketako koordinatzailea izan da.



**MAXIME COMBES** ekonomista da, eta 1990tik aurrera Attac Frantzia engaiatuta dago. Hainbat hedabidetan kolaboratzen du, esaterako Mediapart-en eta Basta! Webgunean (Bastamag.net). Besteak beste, honako lanen egilea da: “Atera gaitezen fosilen arotik! Trantsizioaren aldeko manifestua”. Beste egile batzurekin batera argitaratu ditu “Naturak ez du preziorik” (2012) - “Merkataritza librearen naufragoak, MME” (2015) - “Delinkuentzia klimatikoa geldiarazi!” (2015). - “Klima gure negozioa da” (2015).





### Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak

Urgentzia ekologikoa eta larrialdi soziala:  
erronka ekosozialen aurrean alternatibak eraikiz

#### III. Encuentros Ecosocialistas Internacionales

Urgencia ecológica y emergencia social:  
contruyendo alternativas a los desafíos ecosociales

Bilbo, irailak 23-24-25 septiembre 2016



**MARÍA PAZOS** Izatez matematikaria da, Estatistikan espezializatua. Instituto de Estudios Fiscales-en Fiskalitate eta Generoko ikerketa lerroaren koordinatzailea da. Genero berdintasunean aurrera egiteko beharrezko diren politika ekonomikoen azterketan eskarmentu handia du. Bere azken lana, “Desiguales por Ley, las políticas públicas contra la igualdad de género.



**MARÍA EUGENIA RODRÍGUEZ PALOP** Ekintzaile ekofeminista eta giza eskubideen defentsan aritu dena. Zuzenbidean doktorea eta zuzenbide filosofian irakasle titularra Madrilgo Carlos III Unibertsitatean. Unesco Katedrako “Violencia y derechos humanos: gobierno y gobernanza”ko koordinatzailea, Madrilgo Carlos III Unibertsitateko “Bartolomé de las Casas” Institutuko “Norberto Bobbio” Berdintasun eta Diskriminaziorik Ez Laborategiko zuzendaria da, ingurumena, feminismoa eta giza eskubideen inguruan ikertzen duena, eta Ikerketa Feminista Taldea zuzentzen du. Unibertsitate horretako “Instituto de Estudios de Género”ko kidea da.



**MARTA PASCUAL RODRÍGUEZ** Hezkuntza Zientzietan Lizentziatua, Bitartekotza Soziokomunitateko irakaslea eta Ecologistas en Acción-eko Heziketa eta Partaidetza arloko koordinatzailea. Erakunde honetako Ekofeminismo taldean parte hartzen du. Educación y ecología (Popular, 2007), Claves del ecologismo social (Libros en Acción, 2009) eta Cambiar las gafas para mirar el mundo (Libros en Acción, 2011) liburu eta egilekidea, eta jasangarritasuna eta bitartekaritza soziala lotzen duten hainbat artikuluren egilea: jasangarritasunerako heziketa, pobrezia, feminismoa eta ekologismoaren arteko loturak. MPRSrekin batera egungo heziketa kurrikuloaren alternatiba landu du.



**MIKEL OTERO** Fracking EZ mugimendua 2011ko azaroan jaio zen garai horretan Patxi Lopez EAeko lehendakariak frackingaren inguruko egitasmoak plazaratu eta



@alterecosoc



alterecosoc





### Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak

Urgentzia ekologikoa eta larrialdi soziala:  
erronka ekosozialen aurrean alternatibak eraikiz

#### III. Encuentros Ecosocialistas Internacionales

Urgencia ecológica y emergencia social:  
contruyendo alternativas a los desafíos ecosociales


Bilbo, irailak 23-24-25 septiembre 2016

berehala. Hainbat talde ekologista, sindikal, alderdi politiko eta norbanako askok osatu zuten teknika horren aurkako mugimendu anitza. Mikel Otero fracking ez mugimenduan jardun da hasiera hasieratik. Bertan, bereziki frackingaren inguruko informazioa plazaratze lanetan jardun da (300 hitzaldi baino gehiago eman ditu) eta ia hasieratik mugimenduaren bozeramaleetako bat izan da. Instituzioen inguruan egindako lanean ere buru-belarri aritu da, udaletxeetan kanpaina desberdinak bultzatuz eta eusko legebiltzarrean tramitatu zen herri ekimen legegilearen sustatzaileetako bat izanik. Europa mailan ere askotan frackingaren euskal auzia azaltzen egon da. Frackingaren aurkako mugimendutik abiatuta, energia ereduaren inguruko eta TTIParen inguruko hausnarketak plazaratu ditu Fracking EZ taldearekin batera eginiko lanketa kolektiboan.



**LUIS GONZÁLEZ REYES** Ecologistas en Accióneko kidea sorreratik 2015 arte Konfederazioko Idazkaritzan, eta bederatzi urtez koordinatzailea izan zen. Gaur egun Garúa S. Coop. Mad.-eko kidea da, ekologia eta heziketa gaiak landuz. Hainbat unibertsitatetako kolaboratzailea da. FUHEMen ere lan egiten du, non “ecosozializazioaren” arduraduna den hiru zentrotan. Hainbat libururen egilea, euren artean “En la espiral de

la energía” azpimarratu daiteke. Kimikan doktorea eta lizentziaturako aparteko saria jaso zuen.



**RAMÓN ZALLO ELGUEZABAL.** Zuzenbidean (Deusto 1971) eta ekonomian (Deusto 1970) lizentziatua. Unibertsitateko irakaslea 1978tik. Informazio Zientzietan doktorea. Ikusentzunekeo Komunikazioan Katedraduna EHU. Estructura, ekonomia eta ikusentzunekeo, kultura eta komunikazio politiketan aditua.



**TCHENNA FERNANDES MASO** herri-abokatua Universidad Federal de Paraná-n (UFPR) lizentziatua, “Energia egungo kapitalismoan” gaian aditua Rio de Janeiro-ko Instituto de Investigación y Planificación Urbana y Regional de la Universidad Federal (UFRJ). Zientzia Politikoetan eta Nazioarteko Erlazioetan Heziketa ikasketak Universidad





### Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak

Urgentzia ekologikoa eta larrialdi soziala:  
erronka ekosozialen aurrean alternatibak eraikiz

#### III. Encuentros Ecosocialistas Internacionales

Urgencia ecológica y emergencia social:  
contruyendo alternativas a los desafíos ecosociales

Bilbo, irailak 23-24-25 septiembre 2016

Federal de la Integración Latinoamericana (UNILA). Represak eragindako kaltetuen mugimenduan lan egiten du, transnazionalak egiten dituzten giza eskubideen urraketak ikertzen, bereziki emakumeen kasuak aztertuz. Ikerketa gaiak: marxismoa Amerika Latinan, indigenen mugimenduak, deskolonizazioak eta erresistentziak.



**YAYO HERRERO** Antropologoa, Gizarte Hezitzailea eta Nekazaritza Ingeniari Teknikoa. FUHEMeko Zuzendari Orokorra. Unesco Katedrako (UNED) Educación Ambiental y Desarrollo Sostenibleko irakasle-kolaboratzailea. Garúa S. Coop. Mad-eko sortzaile eta kidea. Madrilgo Fundación General Universidad Complutenseko

CCEIMko koordinatzailea 2009tik 2012ra. Ekologia sozialaren inguruko hainbat libururen eta artikuluren egilea. Hegoaren eta Papelesen kontseiluko kidea. Ecologistas en Accióneko koordinatzailea izan zen 2005etik 2014ra, eta bertako kidea da oraindik ere.



**ZOE KONSTANTOPOULOU** Abogada y Presidenta del Parlamento Griego desde su nombramiento en la primera de 2015 hasta su renuncia voluntaria después de la aceptación por el Gobierno griego de las condiciones impuestas por la Unión Europea para el pago de la Deuda Pública. Bajo su Presidencia se constituyó la Comisión

Internacional para la Auditoria de la Deuda Griega, "porque el pueblo tiene derecho a conocer la verdad; porque la humanidad no sólo está hecha de relaciones económicas, y porque hay que reubicar a los pueblos y sus derechos en el centro de los proyectos políticos". Esta Comisión, conocida como Comisión de la Verdad emitió su informe dictaminando que la Deuda Griega era odiosa, ilegal e ilegítima, y que en consecuencia no debiera ser pagada. Zoe renunció a su cargo porque no quiso actuar contra la opinión del pueblo griego emitida en referendum ciudadano. Desde entonces continua en su lucha contra la dictadura de la "Troika" desde su condición de abogada y militante por los Derechos Humanos y los derechos de los pueblos.

